

L'Orchestre Philharmonique de Radio France

1937an Frantziako Irratiak sortu zuenetik, Radio Franceko Orkestra Filarmonikoa Europako paisaia sinfonikoan berezia da bere eklektizismoagatik, sorkuntzari ematen dion garrantziagatik (25 obra berri baino gehiago denboraldi bakoitzean), bere kontzertuen forma originalagatik, gonbidatzen dituen artistengatik eta bere proiektu artistiko, hezitzaile eta herritarragatik.

Espiritu honek Mikko Franckekin egiten du bat, orkestraren balio eta helburuekin: 2015etik du musika zuzendari Franck, eta kontzertu bakoitza giza- eta musika- esperientzia izateko asmoz egiten du lan. 2025eko abuztura bitarteko kontratua du; aurretik, Myung-Whun Chung, Marek Janowski eta Gilbert Amy izan ziren postu horretan.

Orkestra pertsona ezagunek zuzendu izan dute: Aaron Coplandetik hasi eta Gustavo Dudamel arte, Pierre Boulez, John Eliot Gardiner, Lahav Shani, Mirga Gražinytė-Tyla, Daniel Harding, Marin Alsop edota Barbara Hannigan tartean; azken hau 2022ko irailetik bere lehen artista gonbidatua da hiru denboraldiz.

Desde su creación por la radiodifusión francesa en 1937, la Orquesta Filarmónica de Radio France se afirma como una formación singular en el paisaje sinfónico europeo por el eclecticismo de su repertorio, la importancia que concede a la creación (más de 25 nuevas obras cada temporada), la forma original de sus conciertos, los artistas que invita y su proyecto artístico, educativo y ciudadano.

Este espíritu encuentra en Mikko Franck, su director musical desde 2015, un abanderamiento a la altura de los valores y ambiciones de la orquesta, decidido a hacer de cada concierto una experiencia humana y musical. Su contrato se prorrogó hasta agosto de 2025, garantía de un acompañamiento a lo largo del curso. Myung-Whun Chung, Marek Janowski y Gilbert Amy lo precedieron.

La orquesta también ha sido dirigida por grandes personalidades, desde Aaron Copland hasta Gustavo Dudamel, pasando por Pierre Boulez, John Eliot Gardiner, Lahav Shani, Mirga Gražinytė-Tyla, Daniel Harding, Marin Alsop o Barbara Hannigan, que desde septiembre de 2022 es su primera artista invitada por tres temporadas.

Mikko Franck zuzendaria / director

1979an Helsinkin (Finlandia) jaioa, orkestra zuzendari ibilbidea 17 urterekin hasi zuen eta geroztik munduko orkestra eta opera antzoki ospetsuenekin egin du lan. 2002tik 2007ra, Belgikako Orkestra Nazionaleko zuzendari izan zen, eta 2006an Finlandiako Opera Nazionaleko Musika Zuzendari Orokor izendatu zuten. Hurrengo urtean, Musika Zuzendari Orokor ez ezik, Zuzendari Artistiko ere izendatu eta bi postuetan aritu zen 2013ko abuztura arte. 2015etik Radio Franceko Orkestra Filarmonikoko zuzendaria da, eta 2025era arte du kontratua.

Europan eta Asian barrena ibili da biran Radio Franceko Orkestra Filarmonikoarekin. Argitalpen zerrenda luzea du, lan sinfonikoak eta operakoek osatutakoa, baita orkestrarekin batera grabatutako zenbait lan ere.

2018an Unicefeko enbaxadore izendatu zuten. 2023an Finlandiako Errepublikako Presidenteak Finlandiako Lehoiaren Ordenako Dominarekin saritu zuen.

Nacido en Helsinki (Finlandia) en 1979, comenzó su trayecto como director de orquesta a los 17 años; desde entonces, ha trabajado con las orquestas y salas de ópera más destacadas del mundo. Desde 2002 hasta 2007, fue el director musical de la Orquesta Nacional de Bélgica, y en

el 2006 lo nombraron Director General de Música de la Ópera Nacional de Finlandia. Al próximo año, también ocupó el puesto de Director Artístico, ocupando ambos puestos hasta agosto de 2013. Desde 2015 es director musical de la Orquesta Filarmónica de Radio France; tiene contrato hasta 2025.

Ha estado de gira junto la orquesta en Asia y Europa en múltiples ocasiones. Tiene una considerable lista de publicaciones discográficas, compuesta por trabajos sinfónicos y operísticos, también varios trabajos grabados junto a la orquesta.

En 2018 lo nombraron embajador de Unicef. En 2023 el Presidente de la República de Finlandia lo premió con la Medalla de la Orden del León de Finlandia.

Sol Gabetta biolontxelo / violonchelo

Aurkezten den toki guztietan, Sol Gabetta errusiar jatorriko txelo-jotzaile frantziar-argentinarrak publikoa liluratzen du bere interpretazioen grin eta arimarekin, eta bere nortasun karismatiko eta limurtzailearekin. Estilo eta errepertorio ezberdinak interpretatzeko moldagarritasuna da bere ezaugarri nagusia. 1969ko Shostakovichen biolontxelorako 2. kontzertu bikainarekin, nahiz XVIII. mende hasierako Vivaldiren biolontxelo barroko batekin entzuleak liluratzeko gai da. Orkestra sinfoniko handiekin, ganbera-orkestrekin edo talde barrokoekin jotzen du, baita bere errezitaldietan ere, pianista edo ganbera-musikari ospetsuekin batera.

Nazioarteko ibilbidea 2004an hasi zuen, Artista Gazte Onenaren "Credit Suisse" sari ospetsua jaso zuenean, musikari gazteentzako sari ordainduetako bat; Vienako Orkestra Filarmonikoarekin Valery Gergieven zuzendaritzapean emandako kontzertuan parte hartzeak musikaren mundurako ate ugari ireki zizkion.

Sol Gabettak ikusleen eta miresle irmoen aparteko jarraipena lortu du Alemaniako hainbat kultur hedabidetan; Munich, Berlin, Hamburg, Viena eta Zurich hirietan, besteak beste. Municheko Orkestra Filarmonikoak, Zurich Tonhalle Orkestrak, Viena Musikvereinek edo Hanburgoko Leiszhallek eskainitako kontzertu handiak betetzen dituzte maiz haren jarraitzaileek. Bere ospeak mugak gainditzen ditu, eta Espainia, Italia, Frantzia, Beneluxeko herrialde eta Britainia Handia bezalako herrialdeetara iristen da.

Dondequiera que se presente, la chelista franco-argentina de origen ruso Sol Gabetta seduce al público con la plenitud, la pasión y el alma de sus interpretaciones y con su carismática y conquistadora personalidad. Su perfil artístico se caracteriza por la gran versatilidad de estilos y repertorios. Es capaz de cautivar a la audiencia con un excelente concierto nº 2 para violonchelo de Shostakovich de 1969, tanto como con uno de Vivaldi de comienzos del siglo XVIII, ejecutado con un chelo barroco. Su música puede ser disfrutada en concierto con grandes orquestas sinfónicas, orquestas de cámara o conjuntos barrocos así como en sus propios recitales, acompañada de renombrados pianistas o músicos de cámara.

Su carrera internacional se lanza en el 2004 cuando recibe el prestigioso premio "Credit Suisse" al Mejor Joven Artista, uno de los principales premios remunerados para músicos jóvenes; su participación en el concierto con la Orquesta Filarmónica de Viena bajo la dirección de Valery Gergiev, le abrió numerosas puertas al mundo de la música.

Sol Gabetta ha logrado un seguimiento extraordinario por parte del público y firmes admiradores en diversos medios culturales germanos; en ciudades tales como Munich, Berlín, Hamburgo, Viena y Zurich. De hecho, sus seguidores a menudo llenan las salas de grandes conciertos brindados por la Filarmónica de Munich, la Orquesta Zurich Tonhalle, la Viena Musikverein o



Leiszhalle en Hamburgo. Su fama trasciende las fronteras y alcanza países como España, Italia, Francia, países integrantes del Benelux y Gran Bretaña.